

AZALPENA

Gizakiak sorrerari, azken helmugari eta bere bizitzako zentzuari buruzko galderari erlijio katolikoak ematen dien erantzunak arrazoitzea, baita honek gure gizarteari egin dion ekarpena ezagutzea eta baliostea.

HELBURUAK

- Gizateriaren sorrerari eta azken helmugari buruz egindako galderari antzinako erlijioek ematen dizkieten erantzunak arrazoitzea.
- Historiaurreko erlijioaren ezaugarri nagusiak identifikatzea.
- Munduko erlijio nagusien ezaugarri garrantzitsuenak identifikatzea: hinduismoa, budismoa, judaismoa, kristautasuna eta islama.
- Jesusen jaioterriko geografiaren eta gizarte-, erlijio- eta politika-bizitzaren berri izatea.
- Jesusen jaiotzaren eta haurtzaroaren datuak eskuratzea Ebanjelioen bidez.
- Jesusen esanak eta eginak ezagutzea, eta haren mezua ateratzea.
- Jesusen mezuen eta kontakizunen bidez, Haren bizitzako azken egunak aztertzea.
- Jesu Kristoren piztuera-prozesua identifikatzea.
- Mendekoste-egunean sortutako Elizaren erakuntza-prozesua ezagutzea.

EDUKIAK

- 1.- Erljioen Hasiera
- 2.- Gaur eguneko erlijioak
- 3.- Jesusen jaiotza
- 4.- Jesusen esanak eta eginak
- 5.- Jesusen nekaldia eta heriotza
- 6.- Kristauen jai handia
- 7.- Kristauen bizitza

METODOLOGIA

Lortu nahi ditugun gaitasunak lantzeko metodología egokia bilatu da. Irakasleak azalduko ditu egin beharreko lanaren ildo nagusiak, eta ikasleek lana gauzatuko dute, bakarka nahiz taldeka, dagokionaren arabera. Hala, eskoletako lan saioak lantzen ari garen trebetasunen eta unearen arabera aldatuko dira. Nolanahi ere, ikasleak izango dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren protagonista.